

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

3309

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 14koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020 jendaurrean jartzea onartzen duena.

Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko otsailaren 27koa 3/1998 Legeak hondakinei buruzko politikaren oinarriak biltzen ditu. Lehentasuna ematen zaie hondakinen prebentzioari eta produktio-eko minimizazioari, berriz erabiltzeari eta balioztatzeari, eta, azkenean, balioztatzea ezinezkoa denean, hondakinak behar bezala deuseztatzea tratatzen da.

Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Organoari hondakinei buruzko planak prestatzeko ematen zaizkion eskumenak betez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020 deritzon dokumentua egin du Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak.

Sustatzen den planak lortu beharreko helburuen, garatu beharreko estrategien, azpiegiturak sortzearen eta finantzaketa sistemen zehaztasunak azaltzen ditu.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020 ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri da. Izan ere, plana egokitu egiten da Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen I.A eranskinean ezarritako betekizunetara.

Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikulua honako hau xedatzen du: organo sustatzaileak jendaurrean jarriko ditu, gutxienez 45 egunez, ingurumenaren jasangarritasunari buruzko txostena eta planaren edo programaren alde aurreko bertsioa, plana edo programa arautzen duen araudiak agintzen dituen agiriekin batera; kontsulta ere egin beharko die, epe horretan bertan, eraginpeko herri-administrazioei eta herritar interesdunei.

Azterturik geratu dira honako xedapen hauek: 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurugiroa babestekoa; 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 196/2013 Dekretua, apirilaren 9koa, Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena; eta oro har aplikagarri den araudia. Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020 jendaurrean jartzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, eta 2014ko urriaren 13ra arte, biak barne.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako eta alegazioak aurkezteko, Plana, ingurumenaren jasangarritasunari buruzko txostenarekin batera, eskuragarri egongo da

2014ko uztailaren 21a, astelehena

Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurumen Sailburuordetzan, Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1ean, eta Sailaren web orrian, honako helbide honetan: www.euskadi.net/medio_ambiente

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 14a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
ALEJANDRA ITURRIOZ UNZUETA.